AHOZKO PROBLEMAK. ERANTZUN EGOKIA IDATZI M1

1- Beatrizek 9 gaztaina erosten ditu eta 3 jaten ditu.
Zenbat gaztaina geratzen zaizkio ?

..... gaztaina geratzen zaizkio.

2-8 marrubi badauzkazu eta 3 jaten badituzu,
zenbat geratuko zaizkizu ?

..... marrubi geratuko zaizkit.

3-Landerrek 2 arkatz ditu eta bere amak 6 ematen dizkio. Zenbat ditu orain ?

..... arkatz ditu landerrek orain.

4-Zenbat mandarina erdi ditut 2 mandarinetan ?

..... mandarina erdi dituzu bi mandarinetan.

5.- 8 errotuladore nituen eta 5 gastatu zaizkit.

Zenbat geratzen zaizkit ?

..... errotuladore geratzen zaizkizu.

6.- 5 kromo ditut. Zenbat falta zaizkit 9 edukitzeko ?

..... kromo falta zaizkizu 9 edukitzeko.

7.- Ikastolako lorategian 4 zuhaitz daude eskuinean eta 4 ezkerrean. Zenbat zuhaitz daude guztira ?

Guztira ..... zuhaitz daude.

8.- Pikuak hartzera goaz. Nire ahizpak 7 hartzen ditu eta nik 2. Zenbat hartu ditugu bion artean ?

..... piku hartu ditugu bion artean.

9.- Ostegunean 7 kromo irabazi nituen eta gaur 2 galdu ditut. Zenbat kromo dauzkat orain ?

Orain ..... kromo dauzkazu.

10.- Edurneren nebak 9 urte ditu eta berak 5 ditu. Zenbat urte gehiago ditu nebak Edurnek baino ?

Nebak ..... urte gehiago ditu.

11. Hamar orrialdetako liburu bat irakurtzen ari naiz eta 4 orrialde irakurri ditut.

Zenbat orrialde falta zaizkit liburua amaitzeko?.

..... orrialde falta zaizkizu liburua amaitzeko.